# GORABIDE

Nº 257 Zk.
FEBRERO DE 2017
2017KO OTSAILA

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA




**Nuevos perfiles de voluntariado**
**Boluntariotzako profil berriak**
pg. 6 or.



**Preocupación de la junta directiva**
**Arduraturik zuzendaritza batzordean**
pg. 7 or.




**Salida de la San Silvestre Bilbao-Rekalde irteera**
pg. 8 or.



## Hugo Baroja, presidente de Gorabide

# *“Quizás no somos conscientes de la importancia que tiene ser socio”*

## Hugo Baroja, Gorabideko presidentea

# *“Beharbada ez gara kontziente bazkide izateak duen garrantziaz”*




## SERVICIO BBK SAIOA GORABIDE

# Guía de recursos en Bizkaia para personas con discapacidad intelectual (pg. 4-5)

# Adimen desgaitasuna duten pertsonerako Bizkaiko baliabideen gida (4-5 or.)


GORABIDE

**ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL**
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
www.gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide

Colabora
Laguntzen du
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# “Beharbada ez gara guztiz kontziente bazkide izateak duen garrantziaz”

## Hugo Barojak, Gorabideko presidenteak, gure elkarteko bazkide izateari garrantzia emateko plana aztertu zuen

**Gure elkarteak kudeatutako planari esker, 2.450 pertsonako masa soziala lortu dugu, hau da, gure zerbitzuak erabiltzen dituztenen %52 baino gehiago. Kopuruetatik harago, horrek esan nahi du gure elkarteko mugimendua sendotzen ari dela. Hori dela eta, gure presidente Hugo Barojak animatu egiten ditu bazkide izan gabe Gorabiderekin lotura duten pertsonak elkartearekin konpromisoa hartzera, haiek ere onuradun izango baitira.**

**Zein da zure balorazioa Gorabideko bazkide izateari garrantzia ematen dion planari buruz?**
*Uste dut asmatu egin dela. Jasotzen dituen neurriek, 2016-2019 Plan Estrategiko berriarekin eguneratuek, lortu dute gizartean dugun ordezkaritza sendoagoa izatea elkarte modura. Eta hori garrantzitsua da, adibidez, adimen desgaitasunen bat dutenen beharretarako irtenbideak proposatzerakoan.*

**Zer egin liteke gure ordezkaritza soziala errealitatearekin leialagoa izateko?**
*Gorabiden erregistratzen diren alta berri gehienak bazkide egiten dira; horrek erakusten du lan ona egiten ari garela. Ahalegin handiagoa egin behar dugu Gorabiderekin urte askotako lotura izan arren bazkide ez diren familien konpromisoa lortzeko. Beharbada, arazoa izango da ez garela guztiz kontziente bazkide izateak duen garrantziaz.*

**Gerta liteke pertsona batek ez jakitea ez dela bazkidea?**
*Erraza da pentsatzea Astialdiko Zerbitzuko kuota ordaintzen badu, horrekin bazkide dela. Ezarri dugun neurrietako bat da bazkide ez diren familiei abisatzea bazkide izateko urteroko kuota ordaintzen badute, ez dutela bikoizturik ordainduko Astialdiko Programetarako sarbide kanona. Horrek erakusten du ez daukagula dirua biltzeko asmorik, nahi duguna da gure masa sozialak errealitatearekin bat datorren bolumena izatea.*

**Zein gako ari dira jarraitzen bazkide izateari garrantzia emateko?**
*Ezarri ditugun neurri guztiek (bazkide direnentzako abantailak eta erantzukizun publikoko zerbitzuak ez direnetara sarbidea izateko kanona kobratzea bazkide ez direnei) bi baldintzatzaile dituzte: ez dadila inor geratu Gorabiden erregistratu gabe eta ez dadila inor geratu ematen ditugun zerbitzuak erabili gabe. Hori bai, helburu argia izanik, gure elkartera hurbiltzeaz gain elkarteko kide izatea erabakitzen duten pertsonak aintzat hartzea.*

**Amaitzeko, gogoratu zergatik den garrantzitsua bazkide egitea.**
*Beti esaten dut berdina: abantaila ekonomikoekin gera gaitezke, baina bazkide izateak aukera ematen du elkartean hartzen diren erabakietan eragina izateko. Horrela, zerbitzuak erabiltzen ditugunok diseinuan eta gobernuan hartzen dugu parte.*



IRAKURKETA ERRAZA

Gure presidenteak azaldu du oso garrantzitsua dela Gorabideko bazkide izatea. Hark dioenez, Gorabiden dauden pertsonak bazkide egiten badira, gure elkartea sendoagoa izango da. Gainera, bazkideak direnek erabakiak har ditzakete elkartean.





# “Quizás no somos del todo conscientes de la importancia que tiene ser socio”

## Hugo Baroja, presidente de Gorabide, hace balance del plan que pone en valor la condición de ser socia o socio de nuestra asociación

**Gracias al plan impulsado por nuestra asociación, hemos alcanzado una masa social de 2.450 personas, lo que supone más del 52% de quienes usan nuestros servicios. Más allá de los números, esto significa que nuestro movimiento asociativo se fortalece. En ese sentido, nuestro presidente Hugo Baroja anima a las personas que estén vinculadas a Gorabide y no sean socias a comprometerse con la asociación, porque también les beneficia a ellas.**

**¿Cuál es su valoración del plan que pone en valor la condición de ser socio o socia de Gorabide?**
*Creo que ha sido un acierto. Las medidas que contempla, que se han actualizado con el nuevo Plan Estratégico 2016-2019, han logrado que fortalezcamos aún más la representación social que tenemos como asociación. Y eso es importante, por ejemplo, a la hora de proponer soluciones a las necesidades de las personas con discapacidad intelectual.*

**¿Qué podría hacerse para que nuestra representación social fuera aún más fiel a la realidad?**
*La mayoría de las nuevas altas que se registran en Gorabide se hacen socias; eso demuestra que estamos haciendo un buen trabajo. En la parte que tenemos que esforzarnos es en la de conseguir el compromiso de las familias que están vinculadas a Gorabide desde hace muchos años, pero no son socias. Quizás, el problema esté en que no somos del todo conscientes de la importancia que tiene ser socio.*

**¿Puede ocurrir que una persona no sepa que no es socia?**
*Es tan sencillo como que pague la cuota del Servicio de Tiempo Libre, y dé por hecho que, con eso, ya es socia. Unas de las medidas que hemos implantado es avisar a las familias que no son socias de que si pagan la cuota anual de socio, se evitan duplicar el pago del canon de acceso a los Programas de Tiempo Libre. Eso demuestra que no tenemos un afán recaudatorio, sino que buscamos que nuestra masa social tenga un volumen acorde a la realidad.*

**¿Cuáles son las claves que se están siguiendo para poner en valor la condición de ser socia o socio?**
*Todas las medidas que hemos implantado (ventajas para las personas que son socias y cobro de un canon de acceso a los servicios que no son de responsabilidad pública para las que no lo son) tienen un doble condicionante: que nadie deje de registrarse en Gorabide y que nadie deje de disfrutar de los servicios que prestamos. Eso sí, con un claro objetivo de reconocer a las personas que, además de acercarse a nuestra asociación, deciden formar parte de ella como movimiento asociativo.*

**Por último, recuerde por qué es importante hacerse socio o socia.**
*Siempre digo lo mismo: podríamos quedarnos con las ventajas económicas, pero es que ser socio permite incidir en las decisiones que se toman en la asociación. De ese modo, quienes usamos los servicios participamos en su diseño y en su gobierno.*

LECTURA FÁCIL

Nuestro presidente explica que es muy importante ser socio o socia de Gorabide. Dice que si las personas que están en Gorabide se hacen socias, nuestra asociación será más fuerte. Además, dice que las personas que son socias pueden tomar decisiones en la asociación.

# RECURSOS PARA DISCAPACIDAD INTELECTUAL EN BIZKAIA

**Guía de instituciones y entidades a las que dirigirse para planificar los apoyos presentes y futuros de las personas con discapacidad intelectual y sus familias. El Servicio BBK SAIOA Gorabide realiza un itinerario adaptado a cada persona.**

# ADIMEN DESGAITASUNERAKO BALIABIDEAK BIZKAIAN

**Adimen desgaitasuna duen pertsonarentzat eta haren familiarentzat egungo eta etorkizuneko laguntzak planifikatzeko BBK SAIOA Gorabide zerbitzuak bakoitzarentzako ibilbidea egiten du.**



BBK SAIOA Gorabide
TEL. 94 453 90 86

## Reconocimientos iniciales
Diputación Foral de Bizkaia.
- Reconocimiento de discapacidad que incluya valoración de movilidad y trasporte.
- Valoración del grado de dependencia.
- Familia numerosa.

## Lehenengo aitorpenak
Bizkaiko Foru Aldundia.
- Desgaitasunaren ebaluazioa, mugikortasunerakoa eta garraioa erabiltzekoa barne.
- Mendekotasun graduaren ebaluazioa.
- Familia ugaria.

## Información, orientación y apoyo
BBK SAIOA Gorabide y otras entidades.

## Informazioa, orientazioa eta laguntza
BBK SAIOA Gorabide eta beste entitate batzuk.

## Apoyo a la calidad de vida familiar
Gorabide.

## Familia bizi-kalitatearentzako laguntza
Gorabide.

## Servicios
- **Residencias y viviendas** (estancias temporales y definitivas): Diputación Foral de Bizkaia, Gorabide y otras entidades.
- **Centros de día** (temporales o permanentes): Diputación Foral, Gorabide y otras entidades.
- **Respiro familiar de fin de semana en CAD:** Diputación Foral de Bizkaia y Gorabide.
- **Ocupacionales y empleo:** Diputación Foral, Lantegi Batuak y otros.
- **Centro de vida adulta:** BBK.
- **Educativos y formativos:** Gobierno Vasco y otras entidades.
- **Salud:** Osakidetza.
- **Ocio y tiempo libre:** Gorabide y otros.
- **Ayuda a domicilio:** Ayuntamientos.
- **Teleasistencia:** Gobierno Vasco.
- **Atención temprana:** Gorabide y otros.
- **Transporte adaptado:** Bidaideak y otros.

## Zerbitzuak
- **Egoitzak eta etxebizitzak** (aldi baterako edo etengabeko egonaldiak): Bizkaiko Foru Aldundia, Gorabide eta beste entitate batzuk.
- **Eguneko zentroak** (aldi baterakoak edo etengabekoak): Aldundia, Gorabide eta beste batzuk.
- **Eguneko zentroan asteburuetan familien atsedenaldia:** Foru Aldundia eta Gorabide.
- **Zereginetako eta enplegurako zerbitzuak:** Foru Aldundia, Lantegi Batuak eta beste batzuk.
- **Helduko bizitza zentroa:** BBK.
- **Hezkuntzakoak eta hezigarriak:** Eusko Jaurlaritza eta beste entitate batzuk.
- **Osasuna:** Osakidetza.
- **Astialdia eta aisia:** Gorabide eta beste batzuk.
- **Etxez etxeko laguntza:** Udalak.
- **Telelaguntza:** Eusko Jaurlaritza.
- **Arreta goiztiarra:** Gorabide eta beste batzuk.
- **Garraio egokitua:** Bidaideak eta beste batzuk.

## Formación y participación familiar
Gorabide y otras entidades.

## Familien prestakuntza eta partaidetza
Gorabide eta beste entitate batzuk.

## Grupos de autogestores
Gorabide y otras entidades.

## Autogestoreen taldeak
Gorabide eta beste entitate batzuk.

## Tutela institucional
Futubide (también servicio de pretutela) e Instituto Tutelar de Bizkaia.

## Tutoretza instituzionala
Futubide (aurre-tutoretzako zerbitzua ere) eta Bizkaiko Tutoretza Erakundea.

## Recursos económicos
### AYUDAS
- **Para atención temprana:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Productos de apoyo** (prótesis, sillas de ruedas, sistemas de comunicación...): Gizatek (Diputación Foral de Bizkaia) y Osakidetza.
- **Conciliación de vida laboral y familiar:** Gobierno Vasco.
- **Desgravaciones/deducciones IRPF:** Diputación Foral de Bizkaia.

### PENSIONES
- **Invalidez** (no contributiva): Diputación Foral de Bizkaia.
- **Orfandad:** Seguridad Social.

### PRESTACIONES
- **Por hijo o hija a cargo:** Seguridad Social.
- **Cuidado en el entorno familiar** (dependencia): Diputación Foral.
- **Prestación vinculada a servicio** (dependencia): Diputación Foral.
- **Asistencia personal** (dependencia): Diputación Foral de Bizkaia.

## Baliabide ekonomikoak
### LAGUNTZAK
- **Arreta goiztiarrerako:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Laguntzeko produktuak** (protesiak, gurpil-aulkiak, komunikazio sistemak...): Gizatek (Bizkaiko Foru Aldundia) eta Osakidetza.
- **Lana eta familia bateragarri egiteko:** Eusko Jaurlaritza.
- **Desgrabazioak eta kenkariak PFEZ:** Bizkaiko Foru Aldundia.

### PENTSIOAK
- **Baliaezintasuna** (kotizazio gabekoa): Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Zurztasuna:** Gizarte Segurantza.

### PRESTAZIOAK
- **Seme-alabez arduratzeko famili laguntza:** Gizarte Segurantza.
- **Familiaren ingurunean zaintza** (mendekotasuna), **zerbitzu publikoari lotutako prestazioa** (mendekotasuna) **eta pertsonalerako laguntza** (mendekotasuna): Bizkaiko Foru Aldundia.

## Movilidad
- **Subsidio de movilidad, compensación por transporte, exención del impuesto de matriculación, reducción IVA:** Diputación Foral de Bizkaia.
- **Exención impuesto de circulación, tarjeta OTA:** Ayuntamientos.
- **Ventajas para transporte público:** Consorcio de Transportes, Bilbobus, Bizkaibus, Metro Bilbao y Renfe.

## Mugikortasuna
- **Mugikortasun sorospena, garraio konpentsazioa, ibilgailuen matrikulazio zergaren salbuespena, BEZ murrizketa:** Bizkaiko Foru Aldundia.
- **Zirkulazio zergaren salbuespena, TAO txartela:** Udaletxeak.
- **Abantailak garraio publikoetan:** Garraio Partzuergoa, Bilbobus, Bizkaibus, Metro Bilbao eta Renfe.

## Trámites jurídicos
**Modificación de capacidad legal, y designación de figura de protección:** Fiscalía y juzgados.
**Protección patrimonial:** Escritura ante notario.

## Izapide juridikoak
**Lege-gaitasunaren aldaketa, babes-figureko izendapena:** Fiskaltza eta auzitegiak.
**Ondarea babestea:** Notario aurreko eskritura.

# Ampliamos el perfil de personas que quieran hacer voluntariado

***Como respuesta a nuestro reto de compromiso e incidencia social, buscamos crear nuevos espacios de colaboración más inclusivos***

Uno de los retos de nuestro Plan Estratégico 2016-2019 es mantener un compromiso con la sociedad y una incidencia social, con el objetivo de fomentar una sociedad más justa y solidaria a través de la transmisión de nuestros valores. Y, en ese sentido, nuestro voluntariado es un agente muy importante a la hora de contribuir al desarrollo social. Tradicionalmente, las personas voluntarias de nuestra asociación se convierten en vehículo de transmisión de nuestros valores éticos y solidarios en su entorno a raíz de su participación en los programas del Servicio de Tiempo Libre. Pero, en los últimos años, se han ido incorporando a otras actividades y procesos de nuestra asociación, como grupos de contraste o proyectos de innovación.

**Nuevos perfiles**

Actualmente, ya contamos con personas voluntarias en los proyectos de duelo y de sexualidad, así como en el Programa Goratu. Pero queremos seguir incrementando esta 'otra familia' de nuestra asociación para poder explorar nuevos perfiles de voluntariado y nuevas vías de colaboración, que permitan generar espacios inclusivos de relación entre personas con y sin discapacidad intelectual.

**Para más información:**
www.gorabide.com/voluntariado
tiempolibre@gorabide.com
Teléfono 94 443 12 10



# Zabaldu egin dugu boluntario aritu nahi dutenen profila

***Gizartearekiko konpromisoa eta eragina izateko dugun erronkari erantzunez, lankidetza espazio inklusiboagoak sortu nahi ditugu***

2016-2019 Plan Estrategikoko erronka bat da gizartearekin konpromisoa izaten jarraitzea eta gizartean eragina izatea, gizarte bidezkoago eta solidarioagoa sustatzeko gure balioak transmitituz. Arlo horretan, gure boluntarioak agente garrantzitsuak dira gizartea garatzen laguntzerakoan. Tradizioz, gure elkarteko boluntarioak euren ingurunean gure balio etikoak eta solidarioak transmititzeko bidea Astialdiko Zerbitzuko programetan parte hartuz bihurtzen dira. Baina, azken urteotan, gure elkarteko beste jarduera eta prozesu batzuetan sartzen joan dira, hala nola kontraste talde edo berrikuntza proiektuetan.

**Profil berriak**

Gaur egun baditugu boluntarioak dolu eta sexualitate proiektuetan, eta Goratu Programan ere bai. Baina zabaltzen joan nahi dugu gure elkarteko 'beste familia', boluntariotzako beste profil batzuk eta lankidetzarako bide berriak ezagutzeko, horrela adimen desgaitasuna dutenen eta ez dutenen arteko espazio inklusiboak sortzeko aukera izateko.

**Informazio gehiagorako:**
www.gorabide.com/voluntariado
tiempolibre@gorabide.com
94 443 12 10 telefonoa

# Preocupación de las familias que forman la junta directiva por las movilizaciones durante la negociación del convenio

Ante las movilizaciones que se están produciendo durante la negociación del convenio colectivo propio de Gorabide, las familias que forman la junta directiva de la asociación *"mostramos nuestra preocupación por la situación que se está viviendo. Nuestra asociación considera muy importantes las condiciones laborales de sus profesionales, y se esfuerza por mantenerlas en unos niveles dignos, estables y alejados de la precariedad"*, aseguran. *"Sin menoscabar el legítimo derecho a la negociación colectiva"*, recuerdan *"la estabilidad que se ha mantenido durante los últimos años a pesar de la crisis y su recrudecimiento"*. En ese sentido, destacan datos objetivos como la retribución media de 33.944 euros anuales, superior a la media del sector, con una horquilla de entre 26.244 y 42.251 euros en el 75% de la plantilla, y una jornada laboral anual de 1.592 horas (35 horas semanales). Igualmente, subrayan que *"el convenio colectivo propio de Gorabide destaca por las mejoras que incorpora respecto al convenio sectorial de referencia"*. Más información en **www.gorabide.com/transparencia**

# Zuzendaritza batzordeko kide diren familiak kezkatuta hitzarmenaren negoziazioan sortutako mobilizazioengatik

Gorabideko hitzarmen kolektiboaren negoziazioa bitartean sortzen ari diren mobilizazioak direla eta, zuzendaritza batzordeko kide diren familiek *"kezka adierazi nahi dugu bizitzen ari den egoeragatik. Gure elkartearentzat oso garrantzitsuak dira bertako profesionalen lan baldintzak, eta ahalegina egingo du maila duinari eta egonkortasunari eusteko eta prekaritatetik urrun egoteko"*, esan dute. *"Negoziazio kolektiborako bidezko eskubidea kaltetu gabe"*, gogorarazi dute *"azken urteetan egonkortasuna mantendu dugu, krisia izan eta hura areagotu arren"*. Hori dela eta, datu objektiboak azpimarratu dituzte, hala nola batez besteko 33.944 euroko ordainsaria dute langileek urtean, 26.244 eurotik 42.251 euro bitarteko urkila dago langileen %75en artean, eta 1.592 orduko (35 ordu astean) lanaldia dute urtean. Era berean, azpimarratu dute *"Gorabideko hitzarmen kolektibo propioa nabari da erreferentziazko sektoreko hitzarmenaren aldean hobekuntza handiak dituelako"*. Informazio gehiago: **www.gorabide.com/transparencia**

## LABURRAK BREVES

### Mosaico de Sonidos

Seis personas usuarias de nuestro Servicio de Tiempo Libre participan en el programa 'Mosaico de Sonidos', con Fevas Plena Inclusión Euskadi y la Orquesta Sinfónica de Bilbao. Actuarán en el Palacio Euskalduna los días 9 y 10 de febrero, dentro del concierto de abono de la BOS, interpretando una micro-composición sobre la pieza musical 'La flor más grande del mundo', compuesta por Emilio Aragón basada en un cuento de José Saramago.

### Soinu Mosaikoa

Gure Astialdiko Zerbitzuko sei erabiltzailek hartuko dute parte "Soinu Mosaikoa" programan, Fevas Plena Inclusión Euskadi eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin. Euskalduna Jauregian emanaldia eskainiko dute otsailaren 9an eta 10ean, BOSen abonu-kontzertuaren barruan, mikro konposizio bat interpretatuz: 'La flor más grande del mundo'. Lana Emilio Aragonek konposatu zuen, José Saramagoren ipuin batean oinarrituta.

### Cambio de dirección

La Sección de Valoración de la Discapacidad (Centro Base de la Diputación Foral de Bizkaia) que estaba ubicada en la calle Marcelino Oreja se traslada al Paseo Uribitarte nº 15 de Bilbao.

### Helbide aldaketa

Desgaitasuna ebaluatzeko atala (Bizkaiko Foru Aldundiko Zentroa) lehen Marcelino Oreja kalean zegoena, orain Uribitarte Pasealekuko 15. zenbakian egongo da, Bilbon.

GORABIDE

FEBRERO DE 2017 | Nº 257 Zk | 2017KO OTSAILA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA




**Personas usuarias de nuestra Residencia Arangoiti de Gueñes cortaron la cinta de salida de la carrera San Silvestre Bilbao-Rekalde, con CEAR Euskadi, invitadas por la SD Korrikazaleak.**

**Gueñesen dugun Arangoiti Egoitzako erabiltzaileek ebaki zuten irteerako zinta, San Silvestre Bilbao-Rekalde lasterketan, CEAR Euskadirekin batera, Korrikazaleak KE gonbidatutak.**

# agenda febrero otsaila

JARRAI IEZAGUZU! ¡SÍGUENOS!

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **BUSTURIALDEA** | Comisión / Komisio | | |
| *Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika* | | | |
| **Día / Eguna** | 15 miércoles / asteazkena | **Hora / Ordua** | 18:30 |
| **DEUSTO-SAN IGNACIO** | Junta / Batzorde | | |
| *Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto* | | | |
| **Día / Eguna** | 7 martes / asteartea | **Hora / Ordua** | 19:30 |
| **ERMUA** | Junta / Batzorde | | |
| *Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua* | | | |
| **Día / Eguna** | 6 lunes / astelehena | **Hora / Ordua** | 19:30 |
| **MUNGIALDEA** | Comisión / Komisio | | |
| *Atxurizubi, 12 - Mungia* | | | |
| **Día / Eguna** | 7 martes / asteartea | **Hora / Ordua** | 20:00 |
| **SANTURTZI** | Comisión / Komisio | | |
| *Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi* | | | |
| **Día / Eguna** | 22 miércoles / asteazkena | **Hora / Ordua** | 19:00 |

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **JÓVENES** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | | | |
| **Día / Eguna** | 14 martes / asteartea | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **LOS NUEVOS** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | | | |
| **Día / Eguna** | 6 lunes / astelehena | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **LOS ELEGANTES** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | | | |
| **Día / Eguna** | 8 miércoles / asteazkena | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **LOS VETERANOS** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | | | |
| **Día / Eguna** | 8 miércoles / asteazkena | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **GURE AHOTSA** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)* | | | |
| **Día / Eguna** | 22 miércoles / asteazkena | **Hora / Ordua** | 18:00 |

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao* | | | |
| **Día / Eguna** | 23 jueves / osteguna | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao* | | | |
| **Día / Eguna** | 27 lunes / astelehena | **Hora / Ordua** | 18:00 |
| **FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK** | | | |
| *Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao* | | | |
| **Día / Eguna** | 16 jueves / osteguna | **Hora / Ordua** | 18:00 |

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

D.L./L.G. BI-394-2014